



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko azaroaren 11

133. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, kreditu berezi bat ematekoa Arbizuko Utzubar industrialdean lurra sendotzeko lanak egiteko (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, hizkuntza anitzeko ikuspegi baten esparruan, ama hizkuntzan emandako hezkuntza herritarren artean susta dezan eta herritarrei ezagutzera eman diezaien, Unescoren gomendioei jarraituz, eta Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunari atxiki dakion. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Automobilgintza Klusterra babes-tu dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zeliakoentzako produktuak merkatzeko neurriak bultzatzen. Osasun Batzordean izapidetzea (6. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babes-a adierazten baitie Indarkeria Matxistaren aurkako Martxaren aldarrikapenei. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroako Erriberan osasun garraioa kudeatzen duen enpresari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (8. or.).

—Galdera, EZBetako babes-unitateetako 2016ko diru-laguntzen deialdiari buruzkoa. Ana San Martín Aniz andreak egin du (9. or.).

—Galdera, PIN bekadunei buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (10. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, kreditu berezi bat ematekoa Arbizuko Utzubar industrialdean lurra sendotzeko lanak egiteko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2016ko azaroaren 2an hartutako erabakiaren bidez, Foru Lege proiektu hau igorri dio Nafarroako Parlamentuari: "Foru Lege proiektua, kreditu berezi bat ematekoa Arbizuko Utzubar industrialdean lurra sendotzeko lanak egiteko".

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Arbizuko Utzubar industrialdean lurra sendotzeko lanak egiteko kreditu berezi bat emateko Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekola izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proiektua, kreditu berezi bat ematekoa Arbizuko Utzubar industrialdean lurra sendotzeko lanak egiteko

ZIOEN AZALPENA

Arbizuko Udalak berehala ekin behar die Utzubar industrialdearen ondoko hegal baten lerratzea geldiarazteko lanei, ikusirik hala egin ezean eragina izan dezakeela bertan kokatutako enpresen funtzionamenduan. Arbizuko Udalak laguntza eskatu du lan horiei heltzeko, ez duelako horretarako behar den dirua.

Indarreko 2016ko Gastuen Aurrekontuan ez dago krediturik Arbizuko Udalaren jarduketa hau finantzatzeko, eta beraz, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2004 Foru Legearen 48. artikuluan xedatutakoarekin bat, beharrezkoa da kreditu berezi bat ematea horretarako. 158.000 euroko zenbatekoa du, obra proiektuaren aurrekontuaren % 80 adinakoa.

Era berean, foru lege honek gaikuntza ematen die eragile horiei laguntzak zuzenean eman ditzaten kontu-sail izendunak sortuz, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluan xedatutakoarekin bat.

1. artikulua. Kreditu berezi bat ematea.

158.000 euroko kreditua ematen da, 2016ko ekitaldian Garapen Ekonomikorako Departamentuaren beharrei erantzuteko.

Kreditu hori aurrekontu kontu-sail honetan aplikatuko da:

Kontu-saila	Zenbatekoa
810008-81200-7609-458102 kontu-saila, "Arbizuko Udalarentzako laguntza. Utzubar industrialdean lurra sendotzea" izenekoa.	158.000 €

2. artikulua. Kreditu bereziaren finantzaketa.

Kreditu berezi hori aurrekontuko kontu-sail honen kargura finantzatuko da:

Kontu-saila	Zenbatekoa
810008-81200-7609-458100 kontu-saila, "Jarduera ekonomikoen udal industrialdeetarako laguntzak" izenekoa	158.000 €

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, hizkuntza anitzeko ikuspegi baten esparruan, ama hizkuntzan emandako hezkuntza herritarren artean susta dezan eta herritarrei ezagutzera eman diezaien, Unescoren gomendioei jarraituz, eta Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunari atxiki dakion.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita, hizkuntza anitzeko ikuspegi baten esparruan, ama hizkuntzan emandako hezkuntza herritarren artean susta dezan eta herritarrei ezagutzera eman diezaien, UNESCOren gomendioei jarraituz, eta Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunari atxiki dakion.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko kide Iñaki Iriarte Lópezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ama hizkuntzari buruzko mozio hau aurkezten du:

Unescok hainbat aldiz adierazi du umeen hezkuntzan ama hizkuntza sustatzearen garrantzia. Xede horrekin, 1999an Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna ezarri zuen, urtero otsailaren 21ean ospatzen dena. Koichiro Matsura Unescoren zuzendari nagusiak, 2003ko egun horren ospakizunean, honako hau adierazi zuen: "Ama hizkuntza bakarra da, gizakia jaiotzetik markatzen

duen heinean, errealitatea atzemateko aparteko modu bat uzten baitio, erabat desagertzera inoiz iritsiko ez dena, bizitzan zehar hizkuntza asko ikasita ere."

Unescok berak babestutako azterlan zientifiko batzuek frogatzen dute ama hizkuntzan irakastea funtsezko faktore bat dela hezkuntzaren kalitatea hobetzeko. Izan ere, ama hizkuntzan irakasteak komunikazio ezin hobea bermatzen du irakaslearen eta ikasleen artean, eta ikasleak trebatu egiten ditu beren hizkuntzaren erregistro guztiak jariatasunez menperatzeko. Bestela, egoera diglosikotara iristeko arriskua sortzen da, eta erregistro jasoenetan irakurmena eta idazmena urritzekoa ere bai.

Alde horretatik, ama hizkuntzan irakasteak gizarteratzea bultzatzen du, gizabanakoaren eta komunitateen garapen harmonikoago bat sustatzen duelako. Horri esker, umeek era sakonean ulertuko dute beraien kultura, banakako autoestimua zein autoestimua kolektiboaren onerako, zalantzarik gabe. Eta horrek ez ditu beraien munduan ixten; aldiz, beste kulturetara beldurrik eta konplexurik gabe irekitzeko prestatzen ditu. Horri dagokionez, azpimarratu behar da ama hizkuntzaren alde agertzea ez doala inola ere beste hizkuntza batzuk ikastearen aurka. Aitzitik, Unescok berak guztiz bateragarritzat jotzen du irakaskuntzako maila guztietan hezkuntza elebidun eta hirueledun batekin. Izan ere, ama hizkuntza sakon menperatzea lagungarri gertatuko litzateke, jakina, beste hizkuntza baten erregistro guztietara iristeko.

Horregatik aurkezten dugu erabaki proposamen hau:

1) Bat egiten du Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna ospatzearekin.

2) Nafarroako Gobernua premiatzen du herritarren artean sustatu eta ezagutzera eman dezan, Unescoren gomendioei jarraituz, ama hizkuntzako hezkuntza, hizkuntza anitzeko ikuspegi baten esparruan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Automobilgintza Klusterra babestu dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Automobilgintza Klusterra babestu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatean Automobilgintza Klusterra babestu dezan.

Nafarroako Foru Komunitateko ekonomiaren bilakaera onaren zutabeetako bat automobilgintzaren sektorea dugu, 1996. urteaz geroztik ari baita gure lurraldean autoak muntatzen, horrek enpleguan, demografian, aberastasunean eta gizarte-ongizatean duen eragin guztiarekin.

Nafarroako Estatistika Institutuaren azken datuen arabera (2016ko abuztuko datuak) Nafarroan autoen esportazioa kanpora bidaltzen ditugun salgaien alderdi nagusia da, esportazio guztien % 30,4 baita, eta ondotik datorren alderdia,

“ibilgailuen osagaiak,” % 14,3 da. Horiek horrela, estatistikako azken oharraren arabera, Nafarroako kanpo-merkataritzaren % 45 inguru automobilgintzan kokatzen da.

Ekainaren 24an Iruñean Nafarroako Espezializazio Adimenduna izeneko agiria aurkeztu zen, eta bertan agertzen den lehen ildo estrategikoa “Automobilgintza eta Mekatronika” da. Areago, etorkizun itxaropentsua irekitzen dela dio, ibilgailu elektriko autonomoari, mugikortasun jasangarriari eta 4.0 industriarekin lotutako beste aukera batzuk etortzeari esker.

Hala eta guztiz ere, egiaztatu ahal izan dugunez, sektore honetako enpresei bultzada garrantzitsua eman zaie haien talde-lana sustatzeko, baina oraindik urruti gaude antzeko eskualde baltuetan, Vigon, Zaragozan edo Bartzelonan, esate baterako, lortzen ari diren koordinazio eta lankidetzatik. Izan ere, Nafarroan marka handiei zerbitzua emateko dauden enpresa lagungarrien portzentajea alderatutako lurraldeetako baina txikiagoa da, neurri kezkarrian.

Gure ustez, Nafarroak aukera itzela du merkaturari aurrea hartu eta gure lurraldean benetako zentro bat ezartzeko, ikerketarako eta berrikuntzarako, eta, nola ez, ibilgailuak eta haien osagaiak ekoizteko, orain arte egiten ari denetik hara-tago, hazkunderako tarte errealarrekin. Horretarako ezinbestekoa da erakundeek laguntza sakona eman diezaioten automobilgintzaren sektoreari.

Nafarroako Automobilgintza Klusterra, azkenaldian honetan Foru Komunitateko zenbait marka izendunen bultzada jaso duena, berriz definitzeko fasean dago, eta saiatzen ari da sektorea ordenatzen eta norabide bereko kolaboraziora bideratzen. Helburua da ahalik eta kide gehien lortzea eta egoera prestatzea Nafarroan enpresa berriak ezar daitezen, orain daudenei zerbitzua emanen

dietenak, edo horietatik etekina aterako duten beste batzuk etor daitezten.

Bakarrik baturik eta datozen aldaketara egokitzeko prest egonda lortuko du automobilgintzako industriak baldintza onenak sortzen gure lurraldean izan dezagun etorkizuneko automobilaren erreferentziako zentro zabalena, bermea eta sustapena emanaz hamarkadetan zehar Nafarroari ongizatea ekarri dion sektore horri. Nafarroan funtsezkoa da Automobilgintza Kluster egonkortu bat, indartsua dena eta botere estrategikoa duena, Foru Komunitatean automobilen eta haien osagaien ekoizpena mantendu eta handitu ahal izateko eta garaiari aurrea hartu ahal izateko.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako Automobilgintza Klusterra babestu dezan, aurrekontuetan kontu-sail bat urtero ezarrita, era horretan ahalbidetuz datozen urteotan gutxieneko klusterrak egitura bat mantentzea, bere helburuak lortze aldera.

2. Nafarroan Automobilgintza Klusterrarekin batera lan-talde bat sor dezan, Nafarroa etorkizuneko automobilaren zentro gisa egonkortzeko jarraitu beharreko estrategia lerrokatzeko, industria hori urte askori begira bermatzeko asmoz.

3. Berrikuntza zentroak, unibertsitateak, enpresa publikoak eta Nafarroako Gobernuaren mende-ko gainerako erakundeak inplika ditzan, Nafarroan Automobilgintza Kluster sendo eta sinesgarri bat eraikitze aldera.

Iruñean, 2016ko azaroaren 3an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zeliakoentzako produktuak merkatzeko neurriak bultzatzen.

OSASUN BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osasun Batzordean izapidetu dadin Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zeliakoentzako produktuak

merkatzeko neurriak bultzatzen. Mozioa 2016ko otsailaren 26ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babes-
sa adierazten baitie Indarkeria Matxistaren aurkako Martxaren alda-
rrikapenei.**

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak babes-
sa adierazten die Indarkeria Matxistaren aurkako Martxaren
aldarrikapenei.

2. Nafarroako Parlamentuak babes-
sa adierazten dio gizarte erakundeek azaroaren 7rako deitutako
manifestazioari, eta gonbit egiten die Iruñeko
herritarrei bertan parte har dezaten.”

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Erriberan osasun garraioa kudeatzen duen enpresari buruzkoa.*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Erriberan osasun garraioa kudeatzen duen enpresari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

– Osasun Departamentuak ba al daki zein diren Nafarroako Laneko eta Gizarte Segurantzako Probintzia Ikuskatzaileak Nafarroako Erriberan osasun arloko garraioa kudeatzen duen enpresari planteatutako errekerimenduak?

– Osasun Departamentuak uste al du Erriberako garraio-zerbitzuaren enpresa esleipen-hartzaileak baldintza egokiak biltzen zituela lantokian?

– Osasun Departamentuak ba al daki langile batzuk lanaldi arrunta baino luzeagoan aritu direla 2015eko urritik 2016ko irailera arte, ordu horiek aparteko ordu gisa kotizatu gabe?

– Zer neurri hartuko ditu Departamentuak sortu den egoera horri begira?

Corellan, 2016ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán

Galdera, EZBetako babes-unitateetako 2016ko diru-laguntzen deialdiari buruzkoa.

ANA SAN MARTÍN ANIZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana San Martín Aniz andreak aurkeztutako galdera, EZBetako babes-unitateetako 2016ko diru-laguntzen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Ana San Martín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengo-

tan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaión:

– EZBetako babes-unitateetako 2016ko diru-laguntzen deialdian 2015eko azaroaren 1etik 2016ko urriaren 31ra bitarteko aldia sartzen da.

– Diru-laguntzak eskatzeko proiektuak aurkezteko epea 2016ko urtarrilaren 1etik otsailaren 28ra bitartekoa zen.

– Une honetan, 2016ko azaroaren 3an, ez dago babes-unitate horiek emateko ebazpenik. Alegia, betetzeko aldia amaitu da, baina deialdia ebatzi gabe; hau da, ez dakigu kobratuko den ala ez.

– Noiz ebatziko da? Zein izan da geldialdi horren arazoa?

– EZBek kobratuko ote dituzte 2016ko babes-unitateak?

Iruñean, 2016ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Ana San Martín Aniz

Galdera, PIN bekadunei buruzkoa.

MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, PIN bekadunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak idatziz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuak eskura dituen datuen arabera: Zenbat PIN bekadun sartu dira lanmerkatuan ?

– PIN bekadun izan direnetatik zenbat itzuli dira Nafarroara?

– Zein enpresa-sektoretan eta zein arlotan garatu dira nazioarteko praktika horiek?

– Ba al dakigu zein herrialdek hartzen dituzten nazioarteko praktika horietako bekadunak?

Informazioa ematea, jakiteko itzuli direnean laneratu ote diren nazioarteko praktika horien sektore berean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

